

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO, BERRIKUNTZA ETA PUNTAKO PROFESIONALAK

Amaia Aguirrek gidatutako EAJ-PNV taldeak getxoztarrei bere proiektua eta bere proposamena aurkeztu zienean, honako hau nabarmendu genuen ardatz estrategiko gisa: "Getxo, balio-sorkuntzaren eta ekonomia-berrikuntzaren erdigune: Getxo, ideien, berrikuntzaren eta sormenaren laborategi; merkataritza eta zerbitzu profesional aurreratuak; sorkuntza eta ekin-tzailetza; turismoa eta aisia".

Eusko Alderdi Jeltzalearen konpromisoa, Getxo hazteko, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko udalerrri onenetako bat izateko helburuarekin.

Eta hartutako konpromisoari jarraikiz gauzatzen ari gara. Aste Santu honetan, bisitariek eta getxoztarrok Getxo ezagutzeko planeatu zen 2022ko proposamenaz gozatu dugu eta gozatzeko jarraitzen dugu. "PLAN BAT EGUNERO" eskaintzak 90 jarduera baino gehiago hartzen ditu barne, zeinak 269 enpresak eta bertako langileek gauzatzen baitituzte. Getxoko aisiaz, gastronomiaz, ongizateaz, kulturaz eta kostaldeaz gozatzeko.

Balio-sorkuntzarekiko eta ekonomia-berrikuntzarekiko konpromisoa, betetzen gabiltzana. Apirilaren 28ko Getxo-



Meeting saioak bereziki garrantzitsua den gai baten edizio berria dakarkigu: enpresaren erradiografia, negozio eta

proposamen batzuk aztertuz, zuzenean eta modu parte-hartzailean. Merkatuak eta lan egiteko eta esperientziak parte-

katzeko moduak ezagutzea, Getxoko enpresen proposamenen balio erantsia areagotzen dutenak.

LONJAK PIZTU programa ere nabarmendu behar da, merkataritza-ekimenak edo aukera berritzaile berrietan oinarritutako ezaugarriak dituzten zerbitzu-ekimenak garatzeko alokairurako laguntzak barne hartzen dituenak. Getxoko zerbitzuen enpresak eta merkataritza aktiboki digitalizatzen laguntzeko gogoia eta emandako laguntzak, bezeroengana heltzeko eta sustapen nahiz salmentako sistemetan inor ez dadin atzean geratu.

Edo guztiz oinarritzea den Enpresen Kontsulta Foroa, zeinak Getxoko esparru ekonomikoan gehien nabarmendutako sektoreetan parte hartzeko eta iritzia emateko askotariko espazioak hartzen baititu barne, enpleguak eta oso aukera garrantzitsuak sortzen baitira bertan.

Izan ere, esparru ekonomikoan ere, balio-sorkuntzaren eta ekonomia-berrikuntzaren alorrean, Getxoko EAJ-PNV alderdiak hartutako konpromisoak betetzen jarraitzen du. Hazteko, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko Getxo izan dezagun.



## TXAKURRENTZAKO HONDARTZAK



Maiatzaren 1etik aurrera, gure txakurrak ezingo dira hondartzetan sartu. Hala, orain aske ibil daitezkeen bost guneetatik hiru baino ez dira geratuko. Gaur egun, 3.600 getxoztar baino gehiagok txakurrak dituzte, eta beren maskotek aske korrika egin dezaten espazio bat izateko eskubidea dute. Horretarako, PP taldeak eskatu du gutxi erabiltzen den hondartza bat gaitzea, esate baterako Bola hondartza edo Portu Zaharrekoa, gure txakur-

kurrentzako aisia-gune gisa, hondartzaz eta itsasoaz gozatu ahal dezaten. Halaber, beste hondartzetan haien-tzako gune bat mugatzeko eskatzen dugu, solte uzteko eta aske korrika egin ahal izan dezaten; era horretan, hondartzetako erabiltzaileek, txakur-aren jabeek eta txakurrek espazioa partekatu ahalko dute, denon eskubideak errespetatuz. Tamalez, udalak uko egin dio proposamen horiek aurrera eramateari. #esnatuGetxo



## SALSIDUKO AUZOKIDEEK INFORMAZIOA BEHAR DUTE!

EH Bildutik eskaera egin diogu Udal Gobernuari (EAJ-PSE) Salsiduko auzokideei informazioa eman diezaiela eskatuz. HAPOren aurrerapenean Salsidu inguruan aurreikusten diren hirigintza-planeamenduek kezka handia sortu dute bertako auzokideengan. Oraindik txosten horien dokumentazioa publikoa ez den arren, jakina da beste alderdi politiko batek informazioa filtratu duela eta hedabide batek kaleratu duela.

Salsiduko auzokideek informazio hori jaso dute eta euren kezka adierazi dute, bertako planeamenduek euren etxebizitzetan eragin zuzena izan dezaketelako. Getxoko Udal Gobernuak ez da harremanetan jarri Salsiduko auzokideekin HAPOren aurrerapen hau lantzerako orduan,

eta, beraz, auzokideek jaso duten informazio bakarra momentuz filtrazio horren bitartez izan da.

HAPOren onarpen prozedurak hurrengo hilabeteetan aurrera doan arren, Salsiduko auzokideek informazioa jaso behar dute lehenbait lehen, bertan aurreikusten diren plangintzek eragin zuzena izan dezaketelako euren etxebizitzetan (esate baterako, euren eraikinetan inbertsioak egitea erabakitzen ari diren auzokideen kasuan). Udal Gobernuak alde aurretik egin behar zuen ariketa hau: HAPO lantzeko auzobilerak antolatu, auzokideen ekarpenak jaso, eurekin batera aurrerapen txostena osatu. Baina hori ez du egin, eta orain kezka eta ezjakintasuna da nagusi.



## HEZKUNTZA-ARLOAN AURRERA EGITEN JARRAITZEKO HITZARMEN KOMUNA

Alderdi sozialistak erabateko garrantzia izan du etorkizuneko Euskal Hezkuntza Legearen onespenean. Ez gara "XXI. mendeko hezkuntzarako oinarriak" izeneko dokumentuaren lehenengo zirriborroarekin konformatzen; hartara, lanean aritu gara PSE-EE taldeak funtsezkotzat jotzen dituen ekarpenak txertatzeko: **eskola publikoaren aldeko apustua egitea, hezkuntza-eskubidea** eta ikasle guztien **aukera-berdintasuna bermatze aldera**; eskola-bereizketaren aurka borrokatzea eta hezkuntza-ekitatea lortzeko bidean aurrera egitea, **berdintasun-baldintzetan oinarritutako**

kalitatezko hezkuntzarako sarbidea bermatuz; eleaniztasuna bultzatzea; eta Hezkuntza Saileko plan estrategikoa onestea, besteak beste **sistemaren hezkuntza-bikaintasunerako bidea** markatzeko helburuarekin.

Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko osoko bilkuran onetsitako testu komuna da, zeinari indar politiko guztiek (PSE-EE, EH Bildu, PNV eta Elkarrekin Podemos) aldeko botoa eman baitiote, PP+C's eta Vox taldeek izan ezik. Alderdi sozialistako kideok uste dugu gure seme-alaben hezkuntza **etengabeko bilakaeran egon behar dela, gure gizartea bezala.**



## ERAISPENAREN AURKA, ERRESISTENTZIA KOLEKTIBOA

**Maiatzaren 8an**, Nagusien Etxea defendatzeko taldeek herri-kontsulta bat antolatuko dute, Getxoko ondarearen parte den funtsezko eraikin honen eraispena dela-eta: 35 urte baino gehiago daramatza Romoko adineko zerbitzua ematen, eta udalak eraitsi egin nahi du, horren ordez belaunaldi arteko zentro berria jartzeko; hori guztia, herritarren beharriaz eta auzoko memoria histo-

rikoa alde batera utzita. Beste behin, eraispenaren aurkako borrokan dabilzanenganako babesa eta begirunea adierazi nahi dugu: erakusten ari diren nekaezintasunagatik, erresistentziagatik eta antolakuntzarako nahiz mobilizaziorako gaitasunagatik. Maiatzaren 8an, bozkatzera animatzen zaituztegu. **¡No al derribo! Eraisetari ez!** [elkarrekinpodemos@getxo.eus](mailto:elkarrekinpodemos@getxo.eus)